

HIRIKO GUNE-PUBLIKO ETA KALEEN GARBIKETAREN INGURUKO MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko uztailaren 11n Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainaren 16an Miguel Ángel Díez Bide Publikoetako zinegotzi ordezkariak *Escoba de Platino* izeneko saria jaso zuen Madrilén. Udal ordezkariak honako hau adierazi zuen saria jaso zuenean: “Después de un año de legislatura, volvemos a recuperar los estándares anteriores en la calidad de la limpieza”. Sari honen inguruan ematen den testuingurutik haratago, kexa eta iradokizun batzordeko datuek agerian uzten dute herritarrek egindako garbitasun kexak ez direla gutxitu azken urtean.

Esate baterako, Larratxotik kexa ugari jaso dira; horietako bat, ekainean, Skatepark-ean dagoen zikinkeria eta zaborraren ingurukoa. Auzokideek dioten bezala, gure hiriko gune estali gutxienetako bat da eta ez dute ulertzen garbitasuna ez mantentzea eta zaborrontzirik ez egotea.

Aldi berean, Egiako bizilagunek kexa ugari aurkeztu dituzte udaletxean (udalinfon, herritarrentzako postontzian, telefonoz...): igogailuaren garbiketa eta mantenimendu eza; Maldatxo kaleko garbitasuna, zaborraren kudeaketa eta inaustea direla eta; Tejeriako arkupeen garbiketaren inguruko kexak eta Udalaren esku-hartze eza...

Hain zuzen ere, udal ordezkariak saria jaso zuen aste berean, ekainaren 18an eta 19an, Egiako bizilagunek auzolana egitea erabaki zuten Tejeria kaleko arkupeak garbitzeko.

Bizilagun hauek egindako adierazpen publikoetan diotenez, behin eta berriz jakinarazi diote Udal-gobernuari zein arazo eta behar dituzten, baina urtebetean ez dute erantzunik jaso eta beraien kabuz irtenbide bat bilatu behar izan dute.

Loiolako bizilagunek ere maiatzaren 27an bidali zuten idatzi bat Udalera, argazkiak barne, Mendigain kaleko zikinkeria dela-eta. Auzotarrek diote behin baino gehiagotan auzolana egin behar izan dutela eta beraien kalea garbitu, nahiz eta Udalaren eskumena izan.

Pagolako bizilagunen kasuan, 45-51 zenbakietan bizi direnek ere, dagoeneko, hiru alditan eskatu dute azkeneko urtean beraien zonaldean belarra mozteko eta mantenimendu-lanak egiteko.

Uztailaren 11n, zinegotzi ordezkaria interpelatu genuenean batzordean, adierazi zuen “*plan de choque*” delakoei esker hiriko garbiketa hobetu dela eta auzotarren kexak daudenean erantzuna ematen zaiela eskaerei, baina kasuotan argi gelditu da erantzuna ez

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

dela eman eta, zenbait tokitan, auzolana ere egin behar izan dutela kalea garbitzeko. Batzorde hartan, zinegotzi ordezkariak berak onartu zuen ez zituela ezagutzen aipatutako kexa gehienak, nahiz eta idatziz egindako eskaerak diren.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari herritarrek eta auzo-elkarteez garbiketaz aurkezten dituzten kexak aintzat har ditzala eta erantzun bat eman diezaiela.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari egutegi baten bitartez zehaztu dezala: alde batetik, non eta noiz egin diren, eta, bestetik, zeintzuk diren aurreikusita dituen “plan de choque” delakoak legegintzaldi honetan hiriko auzoetan, interbentzio bakoitzaren aurrekontua adieraziz.

Donostian, 2016ko uztailaren 15ean

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia